

ERASOA ESTATU BATUEN AURKA

Kabulek mehatxu egin die EEBBen erasoa lagunduko duten herriei

Afganistandik behin-behinean alde egiteko eskatu die talibanen gobernuak atzeritarrei

Erredakzioa | DONOSTIA

MOHAMMAD OMAR

Kabulen boterean diren talibanen erregimen islamistak mehatxu egin zien atzo Estatu Batuek Afganistanen aurkako erasoa lagunduko duten herriei. Atzerri ministerioak plazaratutako agiri batek ohartarazi zuenez, «*mujahidin* gudukariak gogor oldartuko zaizkie EEBBei euren lurreko edo aireko baseak prestatuko lituzketen herri auzoei». Halaber, «inguruko herri batek EEBBen erasoari laguntza emango balio, jokaera horrek arrisku ikaragarriak eragingo lizkioke, zeren eta behartuta egongo baikinakeke mendeku gerra batean sartzerat», zehaztu zuen talibanen erregimenak Pakistanen daukan enbaxadore Abdul Salam Zaiffek. Mehatxuzko hitz horiek Islamabaden aditzerat ematea ez da, seguruz ere, kasualitatea izan, Kabul mesfida baita Pakistango agintariak EEBBek galdegindako laguntza onar lezaketela, Washingtonen euren kontra egindako presio handien ondorioz.

Talibanen agintari politikoei Afganistanen herri auzoei egindako ohartarazte horrez gain, erregimenaren erlijio buruzagi Mohammad Omarrek mundu

«Funtsezko kontua da EEBBek etsaigo osoa diotela islamari, eta, halabeharrez, behar dugu zaintzeko prest izan»

zabaleko musulman guztiei deia zabaldu zien *Jihad* gerra santu batean esku hartzeko prest izan daitezen, islam erlijioa zaintzeko gisan. Xariaren Abotsa irratian egindako adierazpen batean Omarrek zioen, «guztiok gogoan izan behar dugu funtsezko kontua ez dela Osama Bin Ladeni mendakatzea; bai, ordea, Estatu Batuek erabateko etsaigoa diotela islamari; hortaz, musulman bakoitza *Jihad* baterako prest izan behar da, halabeharrez».

Afganistango agintari eta herritarrek, dena den, eraso baterako prestatzen ari dira. Hala, taliban erregimemak Afganistanen oraindik geratzen diren atzeritarrei galdegin zien atzo herritik alde egiteko. «Kanpotar guztiei galdegiten diegu Afganistandik behin-behinean ospa egiteko», zehazten zuen oharrrak.



B.K. BANGASH / AP

Taliban talde bat, Afganistanek Pakistanen duen enbaxadorearen hitzak entzuten, atzo, Islamabaden.

MASSUD KOMANDANTEA

Talibanen etsai nagusia hil dela baieztatu dute

Talibanen erregimenari gogor egiten dion Afganistango oposizio indarren buruzagi nagusia zen Ahmed Xa Massud komandantea hil dela baieztatu zuten azkenean atzo, azken bost egunetan kontu honen inguruan ezbaia handia egon ondoren. «Goiz honetan (atzo) hil egin da, Takhar hiriko ospitale batean», zehaztu zuen Iparreko Aliantza izena duen oposizio indarren batasuneko Gobernuaren Atzerri ministro Abdula Abdulak. Albistearen eman zuen aurretik Engineer Baryalay Iparreko Aliantzako



REMY DE LA MAUVINIERE / AP
Ahmed Xa Massud.

eledunak. «Bai, tamalez, hil egin zaigu eta bere hiletak bihar (gaur) egingo ditugu beharbada», esan zuen Baryalayek.

Berri honen baieztatzearekin amaitu zen iragan igandea

az geroztik irauteen zuen zailtasuneko egoera batek. Aski laster jakin zen Massud komandantea igande hartan bertan atentatu baten biktima izan zela, baina bere osasunaz argibide kontrajarriak eman ziren ondorengo egunetan.

Atentatuaren gertaeraz jakin denez, Massuden elkarriketatzeko aitzakian kazetari gisa aurkeztu ziren bi arabiarrek egin zuten. Komandantearekin aurrez aurre egon zirelarik, euren arropetan edo kamara batean ezkutatuta zeuzkaten lehergailuak zartarazi zituzten eta eztanda honek bete-betean harrapatu zuen Massud. Itzultzailea eta bi ekintzaileak ere hil egin ziren leherketaren ondorioz. Massuden ordean, Mohammad Fahim jenerala izendatu dute oposizioiko militarburu gisa.

Euskal Herriak

KONPONBIDE DEMOKRATIKOA BEHAR DU

IRAILAK 18 ARRATSALDEKO 4-TAN

Olaiaren errausketa

ORERETAKO TANATORIOAN



agur eta ohore gudarri gaztea!

A m n i s t i a r e n A l d e k o B a t z o r d e a